

MIKEL GOIENETXE IZANGO DA EROSKI BIDAIEN ZUZENDARI BERRIA

- **Orain arte Ustiapen Saileko zuzendaria izan da Travel Air-en, EROSKI Bidaiak agentziaren enpresa-dibisioan**

Elorrio, 2014ko ekainaren 24a.- Mikel Goienetxe izendatu dute EROSKI Bidaien zuzendari nagusi. 2003. urteaz geroztik, Ustiapen Saileko zuzendari aritu da Travel Air-en, agentzia horretako enpresa-dibisio batean.

Enpresen Administrazioan eta Kudeaketan lizentziatu zen, Herdforsshire-ko Unibertsitatean, eta lan ibilbide eta esperientzia sendoak ditu sektorean, 1999. urteaz geroztik baitu lotura EROSKI Bidaiekin.

Kargu eta ardura berriak hartu ondoren, haren lehentasunetako bat izango da EROSKI Bidaiak eta Barceló Bidaiak apirilean sinatu zuten [aliantza estrategikoa](#) aurrera eramatea, bi konpainiek merkatuan duten kokapena indartzeko helburuz. Bien sinergiak baliatuko dituzte, eta, lehiakorragoak izateko, produktuen eta zerbitzuen katalogo zabalagoa eskainiko dute, bezeroek baldintza hobekak eskura ditzaten.

EROSKI Bidaiak

1980. urtean sortu zuten, eta gaur egun EROSKI Taldeko kide da. Espainiako Estatuan jarduten duten hamar bidaiak agentziarik garrantzitsuenetako bat da. Opor garaiko eskaintzan espezializatua dago eta enpresa bidaiak antolatzen ere lan handia egiten du. Gaur egun, 163 bidaiak agentziatako sarea du, eta horien barnean, enprekin soilik lan egiten duten 28 bulego.

EROSKI Bidaiak [GEBTA sarean sartuta dago \(Guild European Business Travel Agents\)](#); enpresa hautatuak biltzen dituen partzuergoa da, eta 850 saltoki baino gehiago ditu Europa guztian.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 609 386 514

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es